

LAUGARREN KAPITULUA

Nire Balantzategiko bizimodu eztiä eta horren
ondorio txarrak. Genovevaren nortasuna.
Beltz koloreko behioi banketea ematen digute.
Bankete gauean gertatu zena.

1. Zeintzuk dira bizimodu eztiak Mori ekarri zizkion ondorio txarrak?
2. Konpara itzazu *Genoveva* eta *Paulina Bernardette*.
3. Aipatu Balantzategiko arrarotasun gehiago.
4. Zergatik lortu zuen Mok itzala eta begirunea beste behien artean?
5. Zer gertatzen da bankete egunean?
6. Lagunak beti defendatu behar direla esaten du Mok. Pasadizo bat ere kontatzen du hori azaltzeko. Labur ezazu.
7. Lagunaren gorazarrea egiten du :“*laguna defendatu egin behar da beti, otsoen kontra, sugeen kontra...*”. Gabriel Arestiren *Nire Aitaren Etxea* olerkiaren antza hartu diot. Kopia ezazu Arestiren olerkia. Zertan daukate antza testu biek?

Gogoeta

1. Lagunak eta adiskideak ez dira gauza bera Morentzat. Eta zuretzat? Zer egin behar da lagunak izateko? Zelan defenditu beti laguna? Zer da lagun bat traizionatzea?
2. Konta ezazu laguntasunaz daukazun esperientziarik ederrena.

Hiztegia. Eman ondoko hitz hauen esanahia:

Pitzatu, laineza, hots egin, arba, atxiki, zipotza, muxika, aran, fite, babo, abistu, saietera, zaildu, orpo.

Jar ezazu euskara batuan: “*Zinez egün pollita iragan dizüt, Mo, aspaldidanik beinüen burrasoen ikusteko gogoä. Baina zoin pena eta xangrina adio erraiteko tenorean, Mo. Bi orenetan elhestan egon garelarik, eta gero jua behar. Eta badakizüa? Kendü deizüe Altzürüküko otobüsa. Ez düzü haizü! Pitokeria düzü! Jinko jaunak barka dezala ene mintzaje manera hau, baina pitokeria düzü!*”